

*KARMELen Zuzendari Jn.
Carmelo, 10
BILBAO-4*

Agur, Zuzendari Jauna:

Hona gutun honekin batean.nere erantzun-artikulua.

Erantzun-eskubide horren peon babesten naiz.

Senditzen dut gertatu dena. Gure aldetik (JAKINen eta nere aldetik) ez da egon eta ez dago deus KARMELen kontra. Noski. Zergatik, ba, editoriale hori, tonu horretan, eta espreski neri (eta JAKINi) erasoz? Senditzen dut.

Gertatu dena oker-ulertzapen bat izan delakoan eta aurre-rantzean elkarrengandik hurbilago jarraitzeko gogoz,

joan mari torreal dai

f5

GOAZEN, BA, PLAZARA

«Prensa euskaraz» ekinaldia dela eta, KARMELeK «Goazen plazara» izenez atera duen editorialeak harriturik eta penaz utzi nau. (KARMEL, 1980-4, 9-14 or.).

Artikulu hori editoriale gisa ateratzeak harritu nau gehiena. Idaztankeraz ez du editorialea ematen; tonua eta kontzeptu zenbait editoriale-eitetik lekuz kanpo bezala ikusten ditut; Idazle-Kontseiluak horko edukina bere horretan onartzea ulergaitza egiten zait. Aldizkariaren pentsaera agertzen al du artikulu horrek? Ezetz sinetsi nahi nuke.

Harriduraz eta penaz bada ere, editoriale gisa hartu behar dut artikulu hori, eta ez K. Zubizarretarena bezala, nahiz eta idazkeraren azterketarik minimoenak Melo Alferezaren luma salatu.

Esan bezala, plazara nator. Zergatik?

Benin eta berriz aipatzen nau editoriale horrek, eta negati-boki beti (irainka ere bei). Erantzun gisako lerro hauetan, halere, ez naiz nere burua zuritzen arituko, gutiago irainari irainka erantzuten. Susmo txarrez, informazio okerrez eta «tripetako mifiaz» egosiriko artikulu honen zenbait puntu argitu nahi nuke; ez denak, bai handitxoena. Editoriale gilea bezala, sei puntutan arituko naiz ni ere.

1. — Editoriale gilearen tesian, «Prensa euskaraz»eko batzorde antolatzaileak KARMEL «bastertu» (sic) egin nahi izan du, eta hori «apropoz (sic) eta maliziz». Nik dakidanez, aurre-eritziz ez du inor baztertu Batzordeak; gutiago, zapuztu. Aukera bat egin du, hori bai. Aukera eztabaidagarria, zalantzarik gabe, eta (dena esateko) nere ustez ez hoberena (orain ikusita bederen).

2. — Ongi ala gaizki, erizpide batzuen izenean egin zen delako hautapena. Erizpideok ez ziren alde aurretik markatu, ordea, nan bildutakoen artean baizik; bilkura askoren ostean finkatu ziren, gainera. (Gogora dezadan atzera «Goiz Argi»k «Jakin»en aurretik jaso zuela deia; azken orduko deiaren arazoa, hor ere aipatzen dena, gezur hutsa da). Iniziatiba zutenak

egindako deiari kasu e'ginez bilduz joan ginenok erabakitzen genituen, ba, kriteriook; nere erantzukizuna, horrela, partaide bezala dagokidana da, eta ez editorialeak aditzera ematen duen bestekoa. Ez inizatibarik izan dut eta ez kriterio-mugaketarik erabaki dut nik.

Bestalde, editorialeak aipatzen duen «Deia»ko erdal entrebistan agerturiko nere hitzak, ez dira nik «asma-ala» esanak, neuk *esanak* ere ez dira eta, Batzordearen orrietatik kazetariak jasoak eta nere ahoan jarriak baizik, kazetaritzan sarri egin ohi denez. Baina bestela izanda ere, Melo Alferezak zergatik pertsonalizatu nahi du nigan arazoa? «Deia»ko elkarrikketa horretan bertan ere kriterioen berri emaile gisa agertzen bait naiz, ez sekula erabakitzaille antzo.

3.— «Prensa euskaraz» kanpaina eratzeko erizpideen zuzentasuna, egokitasuna, edo dena delakoa, eztabaida daiteke. Horixe baietz. Ez da bidezko, aldiz, pertsonak eta taldeak horrela iraintzea edo/eta mezpretxatzea, editoriale horren egileak egiten duen eran. Ez naiz joku horretan sartuko. Odolki hauek ez dira ordainetan emateko modukoak.

4.— Betiko pertsonalizazio-lerroan, hona zer dioen editoriale horrek: «Ez dakigu Torrealday jaunak ze burditan sartu eta jarri nai gaituan Karmeldarrok. Beintzat, "prensa en euskara" ekinaldia gertatzean, lendabiziko lana izan du gu tratatik kentzea. Ez du lenengo aldiz egina».

Zer da hau? Melo Alferezak nondik duen informazio hori jakin nahi nuke. Berretzailea bide naiz, gainera. Harridura harriduraren gain. Zertan ibili ote naiz ba ni, neuk ere jakin gabe? Noiz ibili ote naiz KARMELi eta karmeldarrei trabak jartzen?

Esaldi honetan eta beste zenbaitetan bada bestelakorik, eta okerragorik. Identifikatze-arazotan maisu da editorialegilea: osd erraz —errazegi— lerratzen da KARMELetik karmeldarren-gana, eta berdin Torrealdairengandik «Jakin»era, eta hemendik frantziskotarrengana. Ez ote hobe bakoitzari berea ematea? Orain, adibidez, J. M. Torrealdei ari da idazten, eta ez «Jakin»en Zuzendaria, ez eta «Prensa euskaraz»eko partaidea. Bistakoa da. Zer bilatzen da nahasiz?

5. — Kanpaina honetan ere karmeldarren eta frantziskotarren arteko gerraren bat ikusten (edo sortu nahi?) bide du editoriale honen egileak. Hor konpon. Ez nabil ni gerra horietan.

6. — Iruditze zaidanez, KARMEL eta « Jakin » aldizkariak kontrajarri nahita bezala ere badabil. « Jakin » aina eta gehiago badela KARMEL frogatu nahi bide du. Gerra berri bat?: « Uste dugu eurak euren gogoz jarritako legeari puntxo (sic) guzitan eurak baino obeto erantzuten diogula. Gutxinez, eurak bezala. Hori bateko. Eta besteko, hau: « Torrealday Jaunak jakifi bear luke Karmelek informacion (sic) ematenduala (sic). Jakifik (sic) bezala ». Bai, badakit. Baina Melo Alferezak jakin behar luke « informazio orokorrekoa » legez izatea zela auzia, ez informazioa ematea edo ez ematea. (Ikus, bestela, Euzko Jaur-laritzak diru-banatzekoan nola bereizten dituen (oraingoan gure kaltetan) « Jakin » eta KARMEL, erizpide horretxan arabera hain zuzen).

Are okerrago. Ezaguna denez, « Jakin » ek gai nagusiaren laburpentxoak egin ohi ditu frantsesez eta espainolez. Laburpen horiek direla eta, « Jakin » ez omen da euskara hutseko aldizkaria. Bista motxa edo borondate txarra behar du baieztapen hori egiten duenak. Nork ez daki jokabide arrunta dela laburpen-teknika hori atzerriko hainbat kulturgunerekin harremanak sortzeko? Gauzak hain estu hartu behar badira, zorioneko editoriale hori berori amaitzen den orrialdean publizitatea espainolez agertzen denez, KARMEL bera ere ez dela euskara hutseko aldizkaria esan behar ote dugu orain?

« Ia xexenik den » atera da editoriale gilea plazara. Plazara atera naiz ni ere, baina ez horretara. Puntu zenbait argitzea eta gauza bakoitza bere lekuan jartzea izan dut eginkizun eta helburu. Lortu al dut?

Dena den, eta besteak beste, « Jakineko Zuzendariak » aspalditxotik du Karmelen berri, eta han eta hemen agertua du aldizkariarekiko istimua, inork bestelakorik uste badu ere. Kulturlan emankorra opa diot geroari buruz ere.

Ez adiorik,

joan mari torreal dai